eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA
ESCUELA DE INGENIERÍA DE BILBAO



# INGENIARITZA ENERGETIKO IRAUNKORRA MASTERRA

www.ehu.eus

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gaur egun, gizakiok erronka erraldoi baten aurrean gaude energia-hornikuntzari dagokionez: alde batetik, baliabide energetikoen eskaintza eta eskaera deskonpentsatuta daude eta horrek berehalako eraginak sortzen ditu baliabide horien kostuan eta, ondorioz, produkzio-sarearen lehiakortasunean; eta bestetik, berotegi-efektuko gasen isurpena murriztu egin behar da, gizakiak berotze globalean duen eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Horretarako murrizte-helburu zehatzak daude, epeak ezarrita dituztenak eta energia gero eta eskuragarriagoa eta isurpenik gabekoa izatearekin bateragarriak diren konponbideak eskatzen dituztenak.

Horregatik, beharrezkoa da sare industrialak eta sozialak erabiltzen duten energia hornitzeari eta erabiltzeari bereziki erreparatzea, gaurko egoera geopolitiko berriko bizitza-estandarrak mantendu eta hedatu ahal izateko helburuarekin.

Horretarako, hornikuntzarako eta kontsumorako aintzakotzat hartu behar den energiak eskaintza, eskaera era inguruneko eragina orekatzeko modukoa izan behar du eta garapen iraunkorra ziurtatu behar du.

Ingeniaritza Energetiko Iraunkorra Masterraren helburu nagusia Energia Sortzeko eta Kudeatzeko adituak prestatzea da. Aditu horiek gai izan behar dute ustiapenean eta energia sortzeko planten eraikuntzan parte hartzeko, gaur erabiltzen diren eta garatzen ari diren sistemei begira.

Prestakuntzan, kontuan hartzen dira klima-aldaketaren aurkako borrokaren printzipioak eta garapen ekonomikoaren eta energia-kontsumoaren iraunkortasuna. Horrela, ikasleek proiektu berritzaileetan eta garapen teknologikoan parte hartu ahal izango dute, mundu osoan interes handia sorrarazten duen arloan.

## SARBIDEA

Ingeniaritzako, Zientzietako eta Arkitekturako gradudunak, lizentziadunak edo diplomadunak bereziki. Lehentasuna izango dute, masterraren arloarekin zerikusia duten ikasgaiak dauzkaten titulazioak, besteak beste, irakasgai hauek:. energiak eta baliabide energetikoak, eta oinarrizko gaiak, esaterako, Fluidoen Mekanika, Termodinamika, Fisika Orokorra, eta abar.

## IRTEERA PROFESIONALAK

Industriaren arlo profesionalean edo ikerketa-jardueretan, ingurune iraunkorragoan energia sortzeko eta kudeatzeko konponbideak planteatzeko gaitasunekin.

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

| | |
|---|---|
| **Eskolak emateko lekua:** | Bilboko Ingenieritza Eskola. |
| **Irakaskuntza mota:** | Eskolan bertakoa. |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania. |
| **Gutxi gorabeherako prezioa:** | 1.950-2.150 euro. |
| **Egutegia:** | Irailetik maiatzera, arratsaldez. |

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

| Nahitaezko Gaiak | Proiektuak / Ikerketa-lanak | Guztira |
|---|---|---|
| 48 ECTS kreditu | 12 ECTS kreditu | 60 ECTS kreditu |

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Energia Hornidura eta Iraunkortasuna.
- Zentral Konbentzionalak.
- Ingurumen inpaktua.
- Sorkuntza proiektua eta kostuak finantzatzea.
- Energia-Zentraleen Fluidodinamika.
- Ezohiko Iturriak.
- Iturri Berriztagarriak.
- Ingeniaritza Nuklerraren oinarriak.
- Prozesuen instrumentazio eta kontrola.
- Mantenua eta Segurtasuna.
- Energiaren merkatuak.
- Jariarekin sarea.

## HARREMANETARAKO

**Arduraduna:**
Margarita Herranz Soler
**Batzorde Akademiko Bokala:**
Saroa Rozas Guinea
**Tel:** 946017204
**Posta elektronikoa:**
saroa.rozas@ehu.eus